

## Balio proposamena:



Ze behar edo arazo kopontzen dugu? Eta zerk bereizten gaitu beste negozioetat?

Arropa arropa da, eta azken finean oso antzekoa da beste dendeekin konparatuz, hala ere, ikusi dugu pertsona askok ez dutela bere estiloa aurkitzen edo haren bila dabiltzala. Ondorioz, gure ideia nagusia izango da bezeroak eskatzen dituen diseinuak egitea, aniztasun infinitua eskainiz.

Gure lokal propioa erosteko ez dugu diru nahikorik, hori dela eta, denda online bat izango dugu. Kasu honetan bereiziko gaituen beste ezaugarrietako bat izango da gure denda denda bat baino gehiago izango dela, plataforma bat hain zuzen ere. Guk plataforma bat sortzeak beste aukera asko ematen dizkio bezeroari, adibidez aholkuak eskatzea, edota beste erabiltzaileekin iritziak elkar trukitzea. Baita ere, arropa marken jaurtiketa berriei buruz **informatuko** ditugu gure bezeroak. Hau da, ez dugu beste marken produkturik salduko. Adibide bat ipintzearen: "Urtarrilak 25ean Nike Dunk Low Panda berri batzuk irtengo dira". Honek gure bezeroak erakarriko ditu, modari buruz eguneratuta egoteko aukera izango dutelako.

Beste puntu bat hau izango da: eskaera egiterako orduan pistatxo poltsak eskainiko ditugu, botoi batean klik eginez pistatxo poltsa hori nahi dutela adierazi dezakete. Pistatxoak banatuko ditugu, gure markaren izena, logoa eta ezaugarriak pistatxoetan oinarrituta daudelako, eta uste dugulako egokia dela hauek eskaintzea. Fruitu lehor hauek aukeratu ditugu txikitan patioetan pistatxoak jaten genituelako, eta oso gustuko ditugulako. Pistatxoaren banaketa

hau egiterakoan bezeroak eskatzen duen produktuak garaiz iritsiko dela zihurtatzen dugu, bestela usteldu daitezkelako.

Gure balorea kualitatiboa izango da, arroparen kalitatean eta diseinuan oinarrituko gara, aldi berean, eskainiko ditugun pistatxoak osasuntsu izatea da gure prioritatea. Hau da, kantitatea baino, kalitatea eskainiko dugu.